

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“A-4040 errepidea Melledestik Manzanoseraino zabalagotu eta hobetzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen jabeei zitazioa egitea okupazioaren aurreko, behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, elkar hartuta balio justurako aktak egiteko**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 4ko 43/2016 Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen “A-4040 errepidea Melledestik Manzanoseraino zabalagotu eta hobetzeko eraikuntza proiektua”, bai eta orobat proiektu horrek erasaten dituen ondasun eta eskubideak banan-banan eta zehazki jasotzen dituen hasierako zerrenda ere.

Geroago, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 17ko 291/2016 Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 19ko 113/2016 Dekretua eman du proiektuak eragindako lurren presazko okupazioa beharrezkoa dela adierazteko, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Horregatik, okupazioaren aurreko, behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, elkar hartuta balio justurako aktak egiteko ekitaldira deitu die Arabako Foru Aldundiak aipatutako proiektuaren eraginpeko eskubideen titularrei, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 94. artikulua aitortzen dizkion eskumenekin bat etorriz, eta indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52. artikulua eta haren arautegiaren 56. artikulua xedatutakoa betez.

Ekitaldi hori 2016ko irailaren 7tik 8ra egingo da, 10:00etatik aurrera, Rivabellosan (Araba) dagoen Erriberabeitiako Udalaren lokaletan, eranskinean adierazitako egun eta orduetan, eta horri buruzko jakinarazpena banakako zitazio zedularen bidez egingo da (Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52-2 artikulua).

Ekitaldi horretara eragindakoek berek edo horien izenean jardungo duten pertsona behar bezala baimenduek joan beharko dute. Batzuek zein besteek jabetza egiaztatzen duten agiriak (eskritura publikoak, pribatuak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak, banku kontuaren zenbakia...) aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, egoki irudituz gero, perituak, abokatuak edo notarioak eraman ditzakete interesdunek, baina horien gastuak beraiek ordainduko dituzte.

Halaber, eta Nahitaezko desjabetzearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, interesdunek nahiz argitaratutako zerrendatik kanpo utzi diren eskubide errealean nahiz interes ekonomikoen titularrek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote idatziz Arabako Foru Aldundiari (Probintzia plaza, 4 - 6. 01001, Gasteiz) okupazioaren aurreko aktak egiteko adierazi den egunera arte, baldin eta ondasun eta eskubide erasanak zerrendatzean okerrik egin bada eta horiek zuzentzeko bada.

Balio beza, orobat, argitalpen honek jakinarazitzat jo daitezen jakinarazpena egin ezin izan zaien pertsona eta erakunde guztiak, zein diren edo nora jakinarazi behar zitzaizen jakiterik izan ez delako edota, jakinarazpena egiten saiatu arren, gauzatu ezin izan delako (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearena, 59.4 artikulua).

Lege oharra. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiak jakinarazten dizu iragarki honetan agertzen diren datu pertsonalak erakunde honek desjabetzaren espedienteak kudeatu eta tramitatzeko daukan

Desjabetzapen Espedienteak izeneko fitxategi mistoaren osagai direla. Datu horiek ez zaizkie jakinaraziko hirugarrenei, legeak ezarritako kasuetan izan ezean. Aipatutako lege organikoak datuetan sartzeko, datuak ezerezteko eta zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak aitortzen ditu; haiei buruz kontsulta edo azalpenen bat egin nahi baduzu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegora (Probintzia plaza 5, 01001 - Gasteiz, Araba) jo beharko duzu.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 8a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*  
**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

MELLEDES ETA MANZANOS ARTEKO A-4340 ERREPERDEA ZABALTZEROKI ETXARTEKORAKI PROIEKTUA  
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN ENCLAVE V MEDIO DE LA CALLE DE LA CALLE DELA A-4340 POR EL ENCLAVE A MANZANOS

Esp./Expn.: 2016/1

FINZAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK:			IDALA	APROVECHAMIENTO	BEHIN-BETIKOA		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURZATIA	PARZELA			ALDI BATERAKOA	SUPERFICIE AFECTADA M2		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES			AVANTAMIENTO	TEMPORAL		DIA	HORA	
		POLIGONO	LURZATIA	PARZELA		DEFINITIVA	SERVIDUMBRE			
17	PRUDENCIO LANA PEREZ	1	1210	119	BASOBERRA / MONTE BAJO	119		07/09/16	10:00	
19	PRUDENCIO LANA PEREZ	1	1212	3535,72	LEHORREKO LABORREA / CULTIVO SECANO			07/09/16	10:00	
21	PRUDENCIO LANA PEREZ	1	1196	68	LEHORREKO LABORREA / CULTIVO SECANO			07/09/16	10:00	
22	PRUDENCIO LANA PEREZ	1	1195	2622	LEHORREKO LABORREA / CULTIVO SECANO			07/09/16	10:00	
28	PRUDENCIO LANA PEREZ	1	857	396	LABORE UREZTATUA / ALFER-LURRA / ERIAL	542		07/09/16	10:00	
18	VICENTE LANA MARQUEZ	1	1211	306,06	ERRIBERA BETIA / RIBERA BAJA			07/09/16	10:30	
26	LOIA LANA PEREZ	1	873	101	ERRIBERA BETIA / RIBERA BAJA			07/09/16	11:00	
29	LOIA LANA PEREZ	1	2601	91	LABORE UREZTATUA / CULTIVO REGADUO			07/09/16	11:00	
14	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MELLEDES	1	1215	398	ERRIBERA BETIA / RIBERA BAJA	13		08/09/16	10:00	
4	GREGORIO FRANCISCO TORRE BLANCO F. JAVIER TORRE BLANCO	1	1231	320	BASOBERRA / MONTE BAJO		Lurpeko hornidura-3m / Abastecimiento subterránea-3m	08/09/16	10:45	
10	GREGORIO FRANCISCO TORRE BLANCO F. JAVIER TORRE BLANCO	1	1225	16	LEHORREKO LABORREA / CULTIVO SECANO ALFER-LURRA / ERIAL LEHORREKO LABORREA / CULTIVO SECANO			08/09/16	10:45	